

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua:	1339/2008	(EE)	ERREGELAMENDUA,	EUROPAKO	PARLAMENTUARENA	ETA
	KONTSEILUARENA, 2008ko abenduaren 16koa, Prestakuntzarako Europako Fundazioa sortzekoa					

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: **REGLAMENTO (CE) N° 1339/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 16 de diciembre de 2008, por el que se crea una Fundación Europea de Formación**(Diario Oficial de la Unión Europea, L 354/82, de 31.12.2008)

1339/2008 (EE) ERREGELAMENDUA

EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2008ko abenduaren 16koa,

Prestakuntzarako Europako Fundazioa sortzekoa

(testu bategina)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Trataturia eta, bereziki, haren 150. artikulua aztertu dute,

Batzordearen proposamena eta Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena¹ aztertu dituzte,

Eta, eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin ondoren, Trataturiko 251. artikulua² araututako prozedura betez,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Kontseilu Europarrak, 1989ko abenduaren 8an eta 9an Estrasburgon egindako bilkuran, Kontseiluari eskatu zion Prestakuntzarako Europako Fundazioa sortzeko erabakiak har zitzala 1990eko hasieran, Batzordearen proposamenari jarraiki. Fundazioa Europa erdialderako eta mendebalderako sortuko litzateke. Ondorioz, 1360/90/EEE Erregelamendua, 1990eko maiatzaren 7koa, eman zuen Kontseiluak.

(2) Geroztik, aldaketa handiak egin zaizkio, behin baino gehiagotan, 1990eko maiatzaren 7ko 1360/90/EEE Erregelamenduari, Prestakuntzarako Europako Fundazioa sortzekoari³. Horrenbestez, beste aldaketa batzuk ere egin behar zaizkionez, testua bategitea komeni da, araua argitzeko.

(3) 1989ko abenduaren 18an, 3906/89/EEE Erregelamendua⁴, Hungariako Errepublikari eta Poloniako Errepublika Popularrari laguntza ekonomikoa ematekoa, eman zuen Kontseiluak, eta, xedapen horren bidez, laguntzak eman zitzaizkien herrialde horiei zenbait eremutan; besteak beste, Hungaria eta Poloniako erreforma ekonomikoko prozesuan laguntzeko prestakuntzan.

(4) Kontseiluak, egintza juridikoen bidez, Europa erdialdeko eta mendebaldeko beste herrialde batzuetara zabaltzen zituen laguntzak.

(5) Kontseiluak 1994ko uztailaren 27an, 2063/94/EE Erregelamendua⁵ eman zuen. Horren bidez, aldatu egin zen 1360/90/EEE Erregelamendua, laguntzen onuradun diren estatuak Prestakuntzarako Europako Fundazioaren jardueren baitan sartzearen, 1993ko uztailaren 19ko 2053/93/EEE (Euratom) Erregelamendua⁶ agindutakoarekin bat etorriz (Sobiet Batasuneko ohiko estatu independenteei eta Mongoliari Tacis programaren baitako laguntza teknikoa emateari buruzkoa).

(6) Kontseiluak, 1998ko uztailaren 17an, 1572/98/EE Erregelamendua⁷ eman zuen, eta, horren bidez, aldatu egin zuen 1360/90/EEE Erregelamendua, Prestakuntzarako Europako Fundazioaren jarduerak zabaltzeko neurri tekniko eta finantzarioen onuradun diren hirugarren herrialdeei eta Mediterraneoko lurraldeei, haien ekonomia- eta gizarte-egituren aldaketari laguntzeko. Aldaketa hori, arau honek xedatutakoari egokitzeko egin zen: Kontseiluaren 1488/96/EE Erregelamendua, 1996ko uztailaren 23koa, gizarte- eta ekonomia-egituren aldaketei laguntzeko neurri finantzario eta teknikoari (MEDA) buruzkoa, Europa-Mediterraneoa lankidetzaren ildoaren baitan⁸.

¹ 2008ko urriaren 22ko irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea).

² Europako Parlamentuaren 2008ko maiatzaren 22ko irizpena (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea), Kontseiluaren 2008eko azaroaren 18ko Jarrera Bateratua (EO C 310 E, 2008.12.5ekoa, 1. or.) eta Europako Parlamentuaren 2008ko abenduaren 16ko Jarrera Bateratua (oraindik ere Egunkari Ofizialean argitaratu gabea).

³ L 131 EO, 1990-5-23koa, 1. or.

⁴ L 375 EO, 1989-12-23koa, 11. or.

⁵ L 216 EO, 1994-8-20koa, 9. or.

⁶ L 187 EO, 1993-7-29koa, p. 1. or.

⁷ L 206 EO, 1998-7-23koa, 1. or.

⁸ L 189 EO, 1996-7-30ekoa, 1. or. 1638/2006/EE Erregelamendua indargabetutako erregelamendua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(7) Kontseiluak, 2000ko abenduaren 5ean, 2666/2000/EE Erregelamendua eman zuen, laguntzak ematekoa Albania, Bosnia-Herzegovina, Kroazia, Jugoslaviako Federazio Errepublikak eta Mazedoniako Errepublika Jugoslaviarrak¹. Erregelamendu horrek aldatu egin zuen 1360/90/EE Erregelamendua, Prestakuntzarako Europako Fundazioaren jardueren artean aintzat hartzeko 2666/2000/EE Erregelamenduan adierazitako Mendebaldeko Balkanetako estatuak.

(8) Aldatu egingo dira Prestakuntzarako Europako Fundazioaren jarduerak hartzen dituzten estatuentzat prestatutako kanpo-laguntzako programak, eta, haien ordez, kanpo-harremanetako politikaren baitako beste tresna batzuk ezarriko dira. Horien artean, aipatzekoak dira bi arau hauek ezarritakoak: batetik, Kontseiluaren 1085/2006EE Erregelamendua, 2006ko uztailaren 17koa, aurretxikimendurako laguntza-tresna bat (IPA)² ezartzen duena, eta, bestetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1638/2006/EE Erregelamendua, 2006ko urriaren 24koa, xedapen orokorrak ezartzen dituen, auzotasun eta elkarretarako tresna europar bat sortzeko³.

(9) Europar Batasunak giza kapitala garatzea jo du helburutzat bere kanpo-harremanetarako politikan, eta lan-ildo hori jorratzean, beren ekonomiaren garapena indartzeko aukera ematen die lagundutako herrialdeei; izan ere, produktibitatea eta enplegua sustatzeko gaitasun-aukerak ematen dizkie, eta, berebat, gizarte-koehesioaren alde egiten du, herritarren parte-hartzea sustatuz.

(10) Herrialde horiek beren ekonomia- eta gizarte-egiturak aldatzeko egiten duten ahaleginean, funtsezkoa da giza kapitala garatzeko egiten duten lana, hori baita bidea egonkortasuna eta oparotasuna lortzeko epe luzearako, eta, bereziki, oreka sozioekonomikoa erdiesteko.

(11) Prestakuntzarako Europako Fundazioak lan handia egin dezake Europar Batasuneko kanpo-harremanen esparruan, giza kapitala garatzen lagun baitezake, eta, berariaz, heziketa eta prestakuntza bultzatuz, etengabeko ikaskuntzaren ildoari jarraiki.

(12) Lana behar bezala egiteko, Europar Batasunak etengabeko hezkuntzaren eta prestakuntzaren alorrean bildu duen eskarmentua baliatu behar du Prestakuntzarako Europako Fundazioak, bai eta jarduera-alor horretan lan egiten duten erakundeen esperientzia guztia ere. Hori guztia, noski, etengabeko ikaskuntzaren ikuspegitik jorratuta.

(13) Erkidegoan nahiz hirugarren herrialdeetan (Prestakuntzarako Europako Fundazioko jardueren hartzaileen diren herrialdeak barne), badira eskualdeko edo nazioko zerbitzu publiko nahiz pribatuak lan hori guztia aurrera eramaten lagun dezaketanak; hau da, giza kapitala garatzen eta, berariaz, heziketaren eta prestakuntzaren alorra garatzen lagun dezaketanak, modu eraginkorrean.

(14) Prestakuntzarako Europako Fundazioaren izaerak eta egiturak aukera eman behar dute erantzun malgu bat emateko haren jardueren hartzaile diren estaturen berariazko eta askotariko eskakizunei, eta, era berean, egokiak izan behar dute bere eginkizunak nazioko eta nazioarteko erakundeekin batera betetzeko, lankidetzaz zuzenean.

(15) Izaera juridikoa eman behar zaio Prestakuntzarako Europako Fundazioari, baina, era berean, harreman organiko estua izan behar du Batzordearekin; betiere, Erkidegoaren eta haren erakundeen ardura politiko eta operatibo orokorrak errespetatuz.

(16) Prestakuntzarako Europako Fundazioak harreman estua izan behar du Lanbide Heziketa Garatzeko Zentro Europarrarekin (Cedefop), Unibertsitate Ikasketen alorreko Europa Barneko Mugikortasun Programarekin (Tempus), eta Kontseiluak haren jardueren hartzaile diren herrialdeetan prestakuntza-jarduerak laguntzeko sor ditzakeen gainerako programekin.

(17) Prestakuntzarako Europako Fundazioak bide eman behar dio Erkidegoko kide ez diren estatuetako herrialdeen partaidetzari, baldin eta bere egiten badute Erkidegoaren eta estatu kideek duten konpromisoa Prestakuntzarako Europako Fundazioko jardueren hartzaile diren herrialdeei laguntza emateko, bai giza kapitala garatzeko alorrean, eta bai, bereziki, hezkuntza eta prestakuntza etengabeko ikaskuntzaren ikuspegitik garatzeko. Partaidetza hori, dena den, Erkidegoak eta herrialde horiek elkarren artean adosten dituzten hitzarmenen baitan eman beharko da.

(18) Zuzendaritza Kontseilu bat osatu behar da fundazioko eginkizunak modu eraginkorrean ikuskatzeko, eta kontseilu horretan parte hartu behar dute estatu kide guztiak, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak.

(19) Fundazioaren autonomia eta independentzia osoa bermatzeko, aurrekontu autonomo bat esleitu behar zaio eta Erkidegoaren ekarpenek izan behar dute aurrekontu horren diru-sarreraren oinarria. Erkidegoko aurrekontu-prozedura aplikagarria izan behar du Erkidegoko laguntzan eta Europar Batasuneko aurrekontu orokorraren baitako edozein diru-laguntzatan. Kontuen Auzitegiak fundazioaren kontuak egiaztatzea komeni da.

¹ L 306 EO, 2000-12-7koa, 1. or.

² L 210 EO, 2006-7-31koa, 82. or.

³ L 310 EO, 2006.11.9koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(20) Fundazioa sortzeko baliatu den arau oinarria 1605/2002/EE (Euratom) Erregelamendua, 2002ko ekainaren 25ekoa, Europako Erkidegoen aurrekontu orokorrari aplikagarri zaion finantza-erregelamendua onartzekoa¹ (aurrerantzean, «finantza-erregelamendua») izan da, eta, zehazki, haren 185. artikuluko 1. paragrafoa. Horrenbestez, fundazioaren finantza-araubideak arau horretan adierazitakoaren arabera izan behar du.

(21) Fundazioari aplikatu behar zaio Batzordearen 2343/2002/EE (Euratom) Erregelamendua, 2002ko azaroaren 19koa, Kontseiluaren 1605/2002/EE (Euratom) Erregelamenduko 185. artikulua adierazten dituen organismoen finantza-esparruko erregelamendua onartzekoa² (aurrerantzean, «finantza-esparruko erregelamendua»).

(22) Iruzurraren, ustelkeriaren eta legearen aurkako beste jarduera batzuen aurka egiteko, fundazioari aplikatu behar zaio, murriztapenik gabe, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1073/1999/EE Erregelamendua, 1999ko maiatzaren 25ekoa, Iruzurraren aurka borrokatzeko Europako bulegoari buruzkoa (OLAF)³.

(23) Fundazioari aplikatuko zaio, halaber, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1049/2001/EE Erregelamendua, 2001eko maiatzaren 30ekoa, pertsona orok Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen dokumentuak kontsultatzeko duten aukerari buruzkoa⁴.

(24) Fundazioak, datu pertsonalak tratatzeko, arau hau aplikatu behar du: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 45/2001/EE Erregelamendua, 2000ko abenduaren 18koa, Erkidegoko erakunde eta organismoek datu pertsonalak tratatu behar dituztenean pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa⁵.

(25) Fundazioaren egoitza Turinen (Italia) izango da. Izendapen horren oinarria da Estatu kideetako gobernuen ordezkariak, eta, zehazki, estatu-buruek eta gobernu-buruek, Bruselan 1993ko urriaren 29an adostasunez hartu zuten erabakia, Europako Erkidegoetako zenbait organismo eta zerbitzuren eta Europolen egoitzak finkatzeari buruzkoa⁶.

(26) Estatu kideek ezin dute, beren kabuz, behar bezala bete Erregelamendu honen xedea, hau da, hirugarren herrialdeei laguntzea giza kapitala garatzen; beraz, helburu hori egokiago bete daitekeenez Erkidego osoko mailan, Erkidegoak neurriak har ditzake, Tratatuko 5. artikulua arautzen duen subsidiariotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan aipatutako proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, helburu hori lortzeko neurriak hartzera mugatzen da erregelamendu hau.

(27) Erregelamendu honek errespetatu egiten ditu Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean onartutako oinarrizko eskubideak eta, bereziki, haren 43. artikulua.

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Xedea eta aplikazio-eremua

1. Erregelamendu honen bidez, Prestakuntzarako Europako Fundazioa sortzen da (aurrerantzean, Fundazioaren xedea izango da giza kapitala garatzen laguntzea herrialde hauetan, Europar Batasuneko kanpo-harremanetarako politiken baitan:

a) laguntza jaso dezaketen herrialdeetan, 1085/2006/EE Erregelamenduak eta haren ondorengo egintza juridikoen xedatutako moduan;

a) laguntza jaso dezaketen herrialdeetan, 1638/2006/EE Erregelamenduak eta haren ondorengo egintza juridikoen xedatutako moduan;

c) zuzendaritza-kontseiluaren erabakien bidez izenda daitezkeen herrialdeetan, baldin eta erabaki horiek organo horretako kideen bi herenek eta Batzordearen irizpen batek bermatzen badute, eta, betiere, Erkidegoko arau-tresna batek edo giza kapitala garapenari buruzko elementuren bat jasotzen duen nazioarteko hitzarmen batek babesten badute. Eskura dauden baliabideen neurrian gauzatuko dira xedapen horiek. Aurrerantzean, «herrialde elkartuak» esango zaie a), b) eta c) idatz-zatietan aipatutako herrialdeei.

2. Erregelamendu honetan, «giza kapitalaren garapena» izango da pertsonen gaitasunak eta trebetasunak garatzeko bultzatzen zehar egiten den lana, hezkuntzako eta lanbide-heziketako sistemen hobekuntzaren bidez.

¹ L 248 EO, 2002-9-16koa, 1. or.

² L 357 EO, 2002-12-31koa, 72. or.

³ L 136 EO, 1999-5-31koa, 1. or.

⁴ L 145 EO, 2001-5-31koa, 43. or.

⁵ L 8 EO, 2001.1.12koa, 1. or.

⁶ C 323 EO, 1993.11.30koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Xede hori lortzeko, Fundazioak laguntza eman diezaieke herrialde elkartuei, jarduera-esparru hauek landuz:

- a) industria-aldaketetara egokitzen laguntzea, bereziki, lanbide-heziketaren eta birziklapenaren bidez;
- b) hasierako lanbide-heziketa eta etengabeko prestakuntza hobetzea, profesionalak lan-merkatuan lehenengo aldiz eta hurrengoetan lanbidera daitezen errazteko;
- c) lanbide-heziketarako sarbidea erraztea eta hezitzaileen eta prestatzaileen mugikortasuna sustatzea, batik bat, gazteena;
- d) ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetzak akuilatzea, prestakuntza gaietan;
- e) informazioaren eta esperientzien trukea bultzatzea, estatu kideetako hezkuntza-sistema guztiek erkide dituzten gaietan;
- f) langileen egokitze-gaitasuna handitzea, bereziki, hezkuntzan eta prestakuntzan parte hartze handiagoa izanda, etengabeko ikaskuntzaren ildoari jarraiki;
- g) aldaketak prestatzea, abiatzea eta egitea prestakuntza- eta hezkuntza-sistemetan, lana eskuratzeko aukerak handitzeko eta lan-merkatuaren egiazko premiei erantzuteko.

2. artikulua

Fundazioaren eginkizunak

Lehen artikuluko 1. paragrafoan adierazitako xedea betetzeko, fundazioak eginkizun hauek izango ditu, eta horiek guztiak zuzendaritza-kontseiluari esleitu zaizkion eskumenen baitan Erkidegoak emandako jarraibide orokorrei jarraituz bete behar ditu:

- a) herrialde elkartuetako giza kapitala garatzeko alderdiei buruzko informazioa eman, analisi estrategikoak egin eta aholkularitza ematea;
- b) nazio-mailako eta tokian tokiko merkatuek beharrezko izan ditzaketen gaitasunak ezagutu daitezen sustatzea eta gaitasun horiek aztertzea;
- c) laguntza ematea herrialde elkartuetako eragile egokiei, giza kapitala garatzeko gaitasuna sortzeko;
- d) herrialde elkartuetan giza kapitala garatzeko jarduerak eraldatzen diharduten emaileen arteko informazio- eta esperientzia-trukeak erraztea;
- e) Erkidegoak herrialde elkartuei ematen dien laguntza ematen laguntzea, giza kapitala garatzeko jarduera-eremuan;
- f) informazioa zabaltzea eta EBren eta herrialde elkartuen artean nahiz azken herrialde horien artean sareak sor daitezen eta esperientziak eta praktika onak truka daitezen bultzatzea, giza baliabideen garapenerako jarduera-eremuan;
- g) laguntza ematea, Batzordearen eskariz, herrialde elkartuei emandako prestakuntzarako laguntzaren eraginkortasun orokorra aztertzeke;
- h) zuzendaritza-kontseiluak eta Batzordeak adostutako bestelako betekizunak, erregelamendu honen esparru orokorraren baitan.

3. artikulua

Xedapen orokorrak

1. Fundazioak izaera juridiko propioa izango du, eta barne-zuzenbideek pertsona juridikoei aitortzen dizkieten jarduteko eskumen juridiko zabalena izango dute, estatu kide bakoitzean. Bereziki, ondasun higigarriak edo ondasun higiezinak erosi edo besterendu ahal izango ditu, eta epaiketetan alderdi gisa aritu ahal izango da. Fundazioak ez du irabazi-asmorik izango.

2. Fundazioak Turinen (Italia) izango du egoitza.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Fundazioak lankidetzan jardungo du Erkidegoko gainerako erakunde eskudunekin, eta Batzordearen laguntza izango du. Fundazioak, berariaz, lankidetzan jardungo du Lanbide Heziketa Garatzeko Zentro Europarrarekin (Cedefop), baterako urteko lan-programa baten baitan. Baterako lan-programa hori bi agentzien urteko lan-programaren jardun paraleloa izango da, haien jardueren arteko sinergia eta osagarritasuna sustatzeko.
4. Fundazioaren lanetan parte hartzeko gonbidapena jaso dezakete, unean uneko egoerari erreparatuta, Erkidegoko erakundeetan ekinez parte hartzen duten Europako gizarte-eragileen ordezkariak eta prestakuntzaren alorrean jarduten duten nazioarteko erakundeak.
5. Europako Arartekoaren administrazio-kontrolpean izango da fundazioa, Tratatuko 195. artikulua xedatutako baldintzetan.
6. Fundazioak lankidetzatza-hitzarmenak egin ditzake giza kapitala garatzeko esparruan jarduten duten Europar Batasuneko nahiz nazioarteko erakunde egokiekin. Zuzendariak aurkeztutako proiektu baten ondoren egingo ditu hitzarmenak zuzendaritza-kontseiluak; betiere, Batzordearen aurretiazko irizpena izanda. Erkidegoko zuzenbidea bete beharko dute hitzarmenetako xedapen operatiboek.

4. artikulua

Gardentasuna

1. Gardentasun-maila handiz jokatu du fundazioak, eta, berariaz, 2. paragrafotik 4. paragrafora xedatutakoak beteko ditu.
2. Fundazioak hauek argitaratuko ditu, haren zuzendaritza-kontseilua osatu ondorengo sei hileko epean:
 - a) Fundazioaren eta haren zuzendaritza-kontseiluaren barne-araudiak;
 - b) fundazioaren urteko jardueren memoria.
3. Egoki denean, fundazioko organoetako bileretara joateko baimena eman diezaieke zuzendaritza-kontseiluak alderdi interesatuei, eta, bilera horietan, behatzaile-izaera izango dute.
4. Fundazioaren eskuetan dauden dokumentu guztiei aplikatuko zaie 1049/2001/EE Erregelamendua. Erregelamendu hori aplikatzeko xedapen praktikoak emango ditu zuzendaritza-kontseiluak.

5. artikulua

Konfidentzialtasuna

1. Erregelamendu honetako 4. artikuluko 4. paragrafoan xedatutakoa betetzeko izango bada ere, fundazioak ez die hirugarrenei jakinaraziko informazio konfidentzialik, baldin eta, arrazoitutako eskariz, konfidentzialtasuna eskatu bada informazio horrentzat.
2. Zuzendaritza-kontseiluko kideek eta zuzendariak sekretu profesionala gordetzeko obligazioa dute, Tratatuko 287. artikulua xedatutakoaren arabera.
3. Fundazioaren eraketa-agiriak xedatutakoari jarraiki, 45/2001/EE Erregelamendua bete behar du fundazioak bildutako informazioak.

6. artikulua

Errekurtso-bideak

Fundazioak 1049/2001/EE Erregelamenduko 8. artikulua aplikatuz hartutako erabakien aurka, aukera izango da Arartekoari erreklamazio bat aurkezteko edo Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiari errekurso bat jartzeko, Tratatuko 195. eta 230. artikuluek xedatutako baldintzetan.

7. artikulua

Zuzendaritza Kontseilua

1. Fundazioak zuzendaritza-kontseilu bat izango du, eta hau izango da bere osaera: estatu kide bakoitzeko ordezkari bat, Batzordeko hiru ordezkari, eta boto eskubiderik izango ez duten hiru aditu, Europako Parlamentuak izendatuak.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Horrez gain, herrialde elkartuetako hiru ordezkari zuzendaritza-kontseiluko bileretara joan daitezke, behatzaile gisa. Ordezkariek ordezkoak izan ditzakete, baina haiekin batera izendatuak izan behar dute.

2. Estatu kideek eta Batzordeak zuzendaritza-kontseiluan adieraziko dute zer ordezkari eta zer ordezko izendatu dituzten. Batzordeak izendatuko ditu herrialde elkartuetako ordezkariak, azken horiek proposatutako hautagai-zerrenda batetik. Aukeraketa egiteko, izangaiek Fundazioaren lan-esparruan duten eskarmentuari eta haien jakintza teknikoari erreparatuko die. Estatu kideek, Europako Parlamentuak eta Batzordeak ahalegina egingo dute zuzendaritza-kontseiluko ordezkariak gizonen eta emakumeen ordezkapen orekatua izan dezan.

3. Kontseilu-kideen agintaldia bost urtekoa izango da, eta behin berritzeko aukera izango da.

4. Batzordeko ordezkarietako bat izango da zuzendaritza-kontseiluko presidentea. Zuzendaritza-kontseiluko kide izateari uzten dionean utziko dio karguari presidentek.

5. Barne-araudia onartuko du zuzendaritza-kontseiluak.

8. artikulua

Bozketak egiteko arauak eta presidentearen eginkizunak

1. Estatu kideen ordezkari gisa izendatua izan den zuzendaritza-kontseiluko kide bakoitzak boto bat izango du. Batzordeko ordezkariak boto bat izango dute guztien artean. Boto-eskubidea duten kideen bi herenaren gehiengoz hartuko ditu erabakiak zuzendaritza-kontseiluak, baina horren salbuespen izango dira 2. eta 3. paragrafoan adierazitako kasuak.

2. Zuzendaritza-kontseiluak, boto-eskubidea duten kideen aho bateko erabakiz, fundazioaren hizkuntzei buruzko arauak finkatuko ditu. Erabaki hori hartzeko, aintzat hartuko du behar adinako baldintzak jarri behar dituela, alderdi interesatu orok fundazioan lan egin eta parte har dezaten.

3. Presidenteak urtean behin deituko du, gutxienez, zuzendaritza-kontseilua. Beste bilera batzuk deitzeko aukera izango da, baldin eta boto-eskubidedun kideen gehiengo bakunak hala eskatzen badu. Presidentearen eginkizuna izango da zuzendaritza-kontseiluari jakinaraztea zer-nolako egoeran dauden bere lanarekin lotuta Erkidegoan egiten diren gainerako jarduerak, eta, halaber, adieraztea zer aurreikuspen dituen Batzordeak hurrengo urtean fundazioak egingo dituen jardueren inguruan.

9. artikulua

Zuzendaritza Kontseiluaren eskumenak

Zuzendaritza-kontseiluak egiteko eta eskumen hauek izango ditu:

a) zuzendaria izendatzea, eta, beharrezkoa denean, hura kargugabetzea, 10. artikuluko 5. paragrafoak xedatzen duena betez;

b) diziplina-eskumena egikaritzea zuzendariarekiko;

c) fundazioko lan-programa erabakitzea, zuzendariak aurkeztutako proiektua aintzat hartuta eta Batzordearen alde aurretiko irizpenari jarraiki, 12. artikuluko adierazitako moduan;

d) fundazioaren sarreren eta gastuen urteko aurreikuspena egitea eta hura Batzordeari aurkezteak;

e) langile-plantillaren proiektua eta fundazioaren behin betiko aurrekontua onartzea, urteko aurrekontu-prozedura 16. artikuluan xedatutako moduan beten ondoren;

f) fundazioaren urteko jarduera-txostena onartzea, 13. artikuluko ezarritako prozedura betez, eta hura Erkidegoko erakundeei eta estatu kideei igortzea;

g) fundazioko barne-araudia onartzea, zuzendariak aurkeztutako proiektua aintzat hartuta eta Batzordeak aurretiaz emandako irizpenari erreparatuta;

h) fundaziolari aplikatuko zaion finantza-araudia erabakitzea, fundazioko zuzendariak aurkeztutako proiektua aintzat hartuta eta Batzordearen alde aurreko irizpenari erreparatuta. Hori guztia 19. arau honetako 19. artikuluko adierazitako moduan egingo da;

i) 1049/2001/EE Erregelamendua aplikatzeko prozedurak onartzea, arau honetako 4. artikuluko xedatzen duen moduan.

10. artikulua

Zuzendaria

1. Zuzendaritza-kontseiluak izendatuko du fundazioko zuzendaria, bost urterako. Izendapen hori egiteko, Batzordeak zerrenda bat aurkeztuko dio zuzendaritza-kontseiluari, hiru izangaiz osatua, gutxienez. Izendatu aurretik, gonbidapen bat egingo zaio zuzendaritza-kontseiluak hautatutako izangaiari, Europako Parlamentuko batzorde eskudunean edo eskudunetan deklarazio bat egin dezan eta batzordeetako kideen galderei erantzun diezaien. Bost urteko epe horren azken bederatzi hiletan zehar, Batzordeak ebaluazio bat egingo du, aurretiaz aditu independenteek egindako ebaluazio batean oinarrituta. Batzordearen ebaluazioak alderdi hauek baloratuko ditu, berariaz: — zuzendariak egindako lana;

— fundazioak hurrengo urteetan egin behar dituen lanak eta izango dituen premiak.

Zuzendaritza-kontseiluak, Batzordearen proposamenari jarraiki, aukera izango du zuzendariaren agintaldia luzatzeko, baina luzapen horrek ezingo du izan hiru urtekoa baino luzeagoa. Luzapena erabakitzeke, ebaluazio-txostenari erreparatuko zaio, eta haren arrazoi bakarra fundazioaren lanak eta premiak betetzea izango da.

Zuzendaritza-kontseiluak Europako Parlamentuari jakinaraziko dio zuzendariaren agintaldia luzatzeko asmoa duela. Agintaldia luzatu aurretik, aukera izango da zuzendariari gonbidapen bat egiteko, Europako Parlamentuko batzorde eskudunean edo eskudunetan deklarazio bat egin dezan eta batzordeetako kideen galderei erantzun diezaien. Haren agintaldia luzatuko ez balitz, zuzendariak bere karguan jarraituko du, harik eta zuzendari berria izendatu arte.

2. Zuzendaria izendatzeko, alderdi hauei erreparatuko zaie: merituak, administraziorako eta gestiorako gaitasuna, esperientzia eta fundazioaren lan-alorrari buruz dituen ezagutza teknikoak.

3. Zuzendaria fundazioaren lege-ordezkaria izango da.

4. Zuzendariak egiteko eta eskumen hauek izango ditu:

a) Batzordeak ezarritako jarraibide orokorrei erreparatuta, urteko lan-programaren proiektua egitea, fundazioaren gastu eta sarreraren aurreikuspen-proiektua prestatzea, beraren eta zuzendaritza-kontseiluaren barne-araudiaren proiektua prestatzea, zuzendaritza-kontseiluaren finantza-araudiaren proiektua egitea eta haren lanak prestatzea, eta prestaketa-lan hori egitea zuzendaritza-kontseiluak *ad hoc* sor ditzakeen lantaldeetarako;

b) zuzendaritza-kontseiluaren bileretan parte hartzea, boto-eskubiderik izan gabe;

c) zuzendaritza-kontseiluaren erabakiak aplikatzea;

d) fundazioaren urteko lan-programa betetzea eta Batzordeak egiten dizkion deialdiei erantzutea;

e) antolamendu-eskumenak betetzea, finantza-esparruko Erregelamenduko 33. artikulutik 42. artikulura xedatutakoari jarraiki;

f) fundazioko aurrekontua betetzea;

g) ikuskapen-sistema eraginkor bat sortzea, 24. artikulua adierazitako aldizkako ebaluazioak egiteko, eta, sistema horri erreparatuta, urteko jarduera-txostenaren proiektu bat proposatzea;

h) Europako Parlamentuari aurkeztea urteko jarduera-txostena;

i) pertsonal-gai guztiak kudeatzea, eta, bereziki, 21. artikulua adierazten diren eskumenak erabiltzea;

j) fundazioko antolamendu-egitura zehaztea eta zuzendaritza-kontseiluari aurkeztea, onar dezan;

k) fundazioaren ordezkarri izatea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren aurrean, 18.5. artikulua xedatutako moduan. Zuzendariak zuzendaritza-kontseiluaren aurrean erantzun beharko du bere ekintzez, eta azken organo horrek kargugabetu egin dezake zuzendaria, Batzordeak hala proposatzen badu, haren agintaldia amaitu baino lehen.

11. artikulua

Interes publikoa eta independentzia

Zuzendaritza-kontseiluko kideek eta zuzendariak interes publikoaren zerbitzura lan egingo dute, eta independentziaz jokatu dute kanpo-eraginekiko. Xede hori betetzeko, konpromiso- eta interes-adierazpenak egingo dituzte urtero, idatziz.

12. artikulua

Urteko lan-programa

1. Urteko lan-programa bat etorriko da 1. eta 2. artikulua fundazioarentzat adierazten dituen helburu, aplikazio-eremu eta egitekoekin.
2. Lau urterako lan-programa urte anitzeko bat prestatuko da Batzordeko zerbitzuekin lankidetzan. Programa hori prestatzeko, xedeko herrialde eta eskualdeekiko kanpo-politikako lehentasunei erreparatuko zaie, eta Erkidegoan hezkuntzaren eta prestakuntzaren alorrean bildu den esperientzia baliatuko da.
3. Urteko lan-programak ezarritako proiektu eta jarduerekin batera, gastuen zenbatespen bat egingo da eta aurrekontuko nahiz langileriako esleipenak egin.
4. Zuzendaritza-kontseiluari aurkeztuko dio zuzendariak urteko lan-programaren proiektua, baina Batzordeak, alde zurretik, hari buruzko irizpena emango du.
5. Indarrean jarri aurreko urteko azaroaren 30a baino lehen onartu behar du zuzendaritza-kontseiluak urteko lan-programaren proiektua. Urteko lan-programa hari dagokion ekitaldiaren hasieran hartuko da behin betiko.
6. Beharrezkoa bada, prozedura bera erabil daiteke urteko lan-programa ekitaldian zehar onartzeko, baldin eta hori egitea beharrezkoa bada Erkidegoko politiken eraginkortasuna handitzeko.

13. artikulua

Jardueren urteko txostena

1. Zuzendariak jardueren urteko txosten bat egingo du bere lanaren berri emateko zuzendaritza-kontseiluari.
2. Jardueren urteko txostenak finantza-alorreko eta kudeaketari buruzko informazioa emango du, urteko lan-programaren eta finkatutako helburuen baitan egin diren eragiketei eta eragiketa horiek dakartzaten arriskuei erreparatuta. Horrez gain, eskura dauden baliabideak nola erabili diren eta barne-kontrolerako sisteman nola funtzionatu duen zehaztuko du txostenak.
3. Zuzendaritza-kontseiluak, urtero, aurreko ekitaldiko jardueren urteko txostenaren proiektua aztertu eta ebaluatuko du.
4. Jardueren urteko txosten onartuko du zuzendaritza-kontseiluak, eta haren azterketa eta ebaluazioarekin batera, erakunde hauei igorriko die, beranduenez ere, hurrengo urteko ekainaren 15erako: Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Batzordeari, Kontuen Auzitegiari eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari. Txosten hori igorriko zaie, halaber, estatu kideei, eta herrialde elkartuei, haren berri izan dezaten.
5. Zuzendariak Europako Parlamentuko batzorde egokiei eta Kontseiluko prestaketa-organoei aurkeztuko die jardueren urteko txostena.

14. artikulua

Erkidegoko beste ekintza batzuekiko lotura

Batzordeak, zuzendaritza-kontseiluarekin lan eginez, bermatuko du fundazioaren lana koherentea eta osagarria dela Erkidegoko beste ekintza batzuekiko; bai Erkidegoan bertan egiten diren ekintzekiko, bai herrialde elkartuei laguntza emateko egiten diren ekintzekiko.

15. artikulua

Aurrekontua

1. Fundazioko sarrera eta gastu guztien aurreikuspenak egingo dira aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako, eta fundazioaren aurrekontuan jasoko dira. Berariaz, langileriari buruzko taula bat jasoko da. Urte zibilarekin bat etorriko dira aurrekontu-ekitaldiak.
2. Sarrerak eta gastuak orekatu egin behar dira aurrekontuan.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Hauek izango dira fundazioaren sarrerak, nahiz eta beste sarrera batzuk ere izan ditzakeen: Europar Batasunaren aurrekontu orokorrean jasotako dirulaguntza bat, emandako zerbitzuen ordainetan egiten zaizkion ordainketak eta beste iturri batzuetatik lortutako finantziazioa.

4. Aurrekontuan zehaztuko dira, halaber, herrialde elkartuek fundazioaren laguntza finantzarioa jasotzen duten proiektuei egiten dizkieten funts-ekarpenak.

16. artikulua

Aurrekontu-prozedura

1. Urtero, zuzendariak egindako proiektuari erreparatuta, fundazioak hurrengo ekitaldirako egiten duen gastuen eta sarreraren aurreikuspena egingo zuzendaritza-kontseiluak. Zuzendaritza-kontseiluak aurreikuspen hori bidaliko dio Batzordeari martxoaren 31rako, beranduenez. Langile-plantillari buruzko proiektu bat jasoko da aurreikuspen horretan.

2. Batzordeak aztertu egingo du aurreikuspen hori, kanpo-ekintzetarako zenbateko osoan proposatutako mugak aintzat hartuta, eta, ondoren, Europar Batasuneko aurrekontu orokorraren aurreproiektuan jasoko ditu egoki irizten dituen baliabideak, lan-plantillari ordaintzeko eta, fundazioari, Europar Batasuneko aurrekontu orokorraren kontura, emango zaion dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko.

3. Batzordeak aurreikuspen-agiria eta Europar Batasunaren aurrekontu orokorraren aurreproiektua bidaliko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari (hemendik aurrera, «Aurrekontu Agintaritza» esango zaie bie batera).

4. Aurrekontu-agintaritzak fundazioari emango zaion diru-laguntza hornitzeko kredituak onartuko ditu. Fundazioaren langile-plantilla onartuko du aurrekontu-agintaritzak.

5. Fundazioaren aurrekontua onartuko du zuzendaritza-kontseiluak. Aurrekontu hori behin betikoa izango da Europar Batasuneko aurrekontu orokorra behin betiko onartzen denean. Beharrezkoa den kasuetan, aurrekontu orokor horren arabera egokituko da fundazioaren aurrekontua.

6. Zuzendaritza-kontseiluak lehenbailehen jakinaraziko dio Aurrekontu Agintaritzari fundazioaren aurrekontuan finantza-aldaketa nabarmenak eragin ditzakeen edozein proiektu gauzatzeko asmoa. Bereziki, higiezinaren jabetzarekin zerikusia duten proiektuena; adibidez, ondasun higiezinak alokatzea edo erostea. Batzordeari ere emango dio horren berri. Aurrekontu-agintaritzaren adar batek irizpena emateko asmoa jakinarazten duenean, zuzendaritza-kontseilura helaraziko du sei aste epean, proiektuaren jakinarazpena egiten denetik hasita.

17. artikulua

Aurrekontuaren gauzapena eta kontrola

1. Fundazioko kontulariak Batzordeko kontulariari igorriko dizkio, beranduenez ekitaldia amaitu ondorengo martxoaren 1erako, behin-behineko kontuak, eta, haiekin batera, ekitaldiko aurrekontu- eta finantza-kudeaketari buruzko txostena. Batzordeko kontulariak bateratu egingo ditu erakunde eta organismo deszentralizatuen behin-behineko aurrekontuak, finantza-erregelamenduko 128. artikulua araututako moduan.

2. Ekitaldia itxi ondorengo martxoaren 31n gehienez, Batzordeko kontulariak fundazioko behin-behineko kontuak aurkeztuko dizkio Kontu Auzitegiari, ekitaldi horri dagokion aurrekontu- eta finantza-kudeaketari buruzko txostenarekin batera. Halaber, ekitaldiko aurrekontu- eta finantza-kudeaketari buruzko txostena Europako Parlamentuari eta Kontseiluari helaraziko zaio.

3. Zuzendariak fundazioaren aurrekontua egikaritu du.

4. Zuzendariak, Kontu Auzitegiak fundazioaren behin-behineko kontuei buruz egiten dituen oharra jasotzen dituen, finantza-erregelamenduko 129. artikulua xedatutakoari jarraiki, fundazioaren behin betiko kontuak taxutuko ditu bere erantzukizunpean, eta zuzendaritza-kontseiluari helaraziko dizkio hark irizpena eman dezan.

5. Zuzendaritza-kontseiluak fundazioaren behin betiko kontuei buruzko irizpena emango du.

6. Ekitaldi bakoitza amaitu ondorengo uztailearen 1ean beranduenez, zuzendariak behin betiko kontu horiek helaraziko dizkie Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Batzordeari eta Kontu Auzitegiari, zuzendaritza-kontseiluaren irizpenarekin batera.

7. Argitaratu egingo dira behin betiko kontua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

8. Kontu Auzitegiak egindako oharpenei erantzungo die zuzendariak, beranduenez ere, aurrekontu-ekitaldi bakoitza amaitu ondorengo irailaren 30erako. Emandako erantzun horren berri emango dio zuzendariak zuzendaritza-kontseiluari.

9. Finantza-erregelamenduko 146. artikuluko 3. paragrafoak xedatutakoa betez, zuzendariak Europako Parlamentuari aurkeztuko dio, azken horren eskariz, ekitaldi bakoitzeko kudeaketa onartzeko prozedura behar bezala betetzeko beharrezkoa den informazio oro.

10. Europako Parlamentuak, Kontseiluak kualifikatutako gehiengoz onartutako gomendioaren ostean, Z + 2 urteko apirilaren 30a baino lehen, zuzendariak Z ekitaldiko aurrekontuaz egin duen kudeaketa onartuko du.

11. Onarpen-erabakiak egiten dituen oharpenak betetzeko behar diren neurriak hartuko ditu zuzendariak.

18. artikulua

Europako Parlamentua eta Kontseilua

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak edozein unetan eska dezakete zuzendariari entzutea, fundazioko jarduerekin zerikusia duten alderdi oro azaltzeko; hala ere, betetzekoak izango dira 17. artikuluko adierazten dituen kontrolak, eta, berariaz, aurrekontu-prozedurak eta erabakiak hartzeko prozedurak.

19. artikulua

Finantza-arauak

1. Fundazioari aplikatuko zaion finantza-araudia onartuko du zuzendaritza-kontseiluak, aurrez Batzordeari kontsulta egin ondoren. Araudi hori finantza-esparruko erregelamenduak araututakotik alden daiteke, baldin eta fundazioaren berariazko funtzionamendu-eskakizunek hala eskatzen badute eta Batzordeak, aurrez aldetik, horretarako baimena ematen badu.

2. Finantza-erregelamenduko 133. artikuluko 1. paragrafoak xedatutakoa betetzeko, Batzordeko kontulariak onartutako kontularitza-arauak aplikatuko ditu fundazioak, fundazioko kontuak eta Batzordekoak bateratzeko.

3. Osorik aplikatuko zaio 1073/1999/EE Erregelamendua fundazioari.

4. Fundazioak bete egingo du 1999ko maiatzaren 25eko erakunde arteko hitzarmena, Europako Parlamentuak, Europar Batasuneko Kontseiluak eta Europako Erkidegoetako Batzordeak izenpetua, Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF)¹ egindako barne-ikerketei buruzkoa. Zuzendaritza-kontseiluak neurriak hartuko ditu OLAF bulegoari laguntzeko barne-ikerketeta horiek egiten.

20. artikulua

Pribilegioak eta immunitateak

Europako Erkidegoetako pribilegioei eta immunitateei buruzko protokoloa aplikagarria izango zaio fundazioari.

21. artikulua

Langileen estatutua

1. Europako Erkidegoetako funtzionarioei eta Erkidegoko bestelako agentei aplikagarri zaizkien erregelamenduen eta arauen pean jardungo dute fundazioko langileek.

2. Izendapenak egiteko eskumena duen agintaritzak dituen ahalmenak izango ditu fundazioak bere langileekiko.

3. Zuzendaritza-kontseiluak, Batzordearekin ados jarrita, garapeneko arau egokiak emango ditu; betiere, bi arau hauek xedatutakoa beteta: Europako Erkidegoetako funtzionarioen estatutuko 110. artikulua eta Europako Erkidegoetako bestelako agentei aplikagarria zaien erregimeneko 127. artikulua.

4. Zuzendaritza-kontseiluak xedapenak eman ditzake estatu kideetako adituek fundazioan lan egin dezaten, zerbitzu-eginkizunetan.

¹ L 136 EO, 1999-5-23koa, 15.or.

22. Artikulua

Erantzukizuna

1. Kasuan kasuko kontratuari aplikatu behar zaion legeak arautuko du fundazioaren kontratu-erantzukizuna.
2. Kontratuz kanpoko erantzukizunari dagokionez, fundazioak konpondu egin beharko ditu fundazioak edo bere agenteek beren eginkizunak betetzean sortutako kalteak, estatu kideetako zuzenbideetan komunak diren printzipio orokorrekin bat etorritik. Europar Batasuneko Justizia Auzitegia izango da kalte-ordainei buruzko auziak erabakitzeke auzitegi eskuduna.
3. Agenteek fundazioarekiko daukaten erantzukizun pertsonala fundazioko langileei aplikagarri zaien araubideko xedapenen arabera arautuko da.

23. Artikulua

Hirugarren herrialdeen parte hartzea

1. Fundazioak bide eman behar dio Erkidegoko kide ez diren estatuetako herrialdeen partaidetzari, baldin eta bere egiten badute Erkidegoak eta estatu kideek duten konpromisoa 1. artikuluko 1. paragrafoan zerrendatzen diren herrialde elkartuei giza kapitala handitzeko jarduera-eremuan laguntza emateko. Partaidetza hori, dena den, Erkidegoak eta herrialde horiek elkarren artean adosten dituzten hitzarmenen baitan emango da, Tratatuko 300. artikulua xedatzen duen prozedura betez. Hitzarmenek alderdi hauek zehaztu behar dituzte, besteak beste: herrialde horiek fundazioko lanetan izango duten partaidetzaren izaera, norainokoa eta modalitateak; finantza-ekarpenei buruzko xedapenak eta langileei buruzko xedapenak. Hitzarmen horiek ezingo diete boto-eskubiderik eman zuzendaritza-kontseiluan ordezkaritza duten hirugarren herrialdeei, eta ezingo dute erregelamendu honetako 21. artikulua aipatzen duen langileriaren estatutuarekin bat ez datozen xedapenik jaso.
2. Zuzendaritza-kontseiluak aukera izango du erabakitzeke beste herrialde batzuek *ad hoc* izaerako lantaldeetan parte har dezaketela, eta erabaki hori, beharrezkoa balitz, 1. paragrafoan adierazitako hitzarmenik izan gabe har dezake.

24. Artikulua

Ebaluazioa egitea

1. Finantza-esparruko erregelamenduko 25. artikuluko 4. paragrafoak xedatzen duena betetzeko, fundazioak jardueren aurreko eta ondorengo ebaluazioak egingo ditu, aldizkakotasun jakinez, baldin eta jarduera horiek gastu handiak ekar baditzaizkete. Zuzendaritza-kontseiluari jakinaraziko zaizkio ebaluazio horien emaitzak.
2. Batzordeak, lau urtean behin, alderdi hauen ebaluazioa egingo du, zuzendaritza-kontseiluari kontsulta egin ondoren: erregelamendu honen aplikazioa, fundazioak lortutako emaitzak, eta fundazioaren lan-metodoak, erregelamenduan zehaztutako helburuei, agintaldiei eta eskumenei erreparatuta. Kanpo-adituek egingo dute ebaluazioa. Europako Parlamentuari, Kontseiluari, eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari jakinaraziko die Batzordeak ebaluazioaren emaitzak.
3. Ebaluazio-prozesuan azalaraz daitezkeen arazoak konpontzeko beharrezkoak izan daitezkeen neurri guztiak hartuko ditu fundazioak.

25. artikulua

Erregelamendu hau aztertzea

Ebaluazioa egin ondoren, eta, beharrezkoa bada, erregelamendu hau berrikustek proposamen bat egingo du Batzordeak. Batzordeak uste badu, fundazioarentzat ezarri diren helburuei erreparatuta, ez dagoela fundazioa izateko arrazoirik, erregelamendu hau indargabetzea proposa dezake.

26. artikulua

Indargabetzea

Erregelamendu honetako I. eranskinetako zerrendak adierazitako moduan, indargabetu egiten dira 1360/90/EE, 2063/94/EE, 1572/98/EE eta 1648/2003/EE erregelamenduak, eta 2666/2000/EE erregelamenduko 16. artikulua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Indargabeturiko Erregelamenduei egindako erreferentziak Erregelamendu honi egindakotzat hartuko dira, erregelamendu honen II. eranskinean jasotako korrespondentzia-taulari jarraiki.

27. artikulua

Indarrean sartzea

Erregelamendu hau *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu eta 20 egunera sartuko da indarrean.

Erregelamendu honen elementu guztiak dira bete beharrekoak eta estatu kide bakoitzean zuzenean aplikatzekoak.

Estrasburgon emana, 2008ko abenduaren 16an.

Europako Parlamentuaren izenean,

Lehendakaria H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean,

Lehendakaria B. LE MAIRE

ANEXO I

Reglamento derogado, con sus modificaciones sucesivas

Reglamento (CEE) n° 1360/90 del Consejo	(DO L 131 de 23.5.1990, p. 1)
Reglamento (CE) n° 2063/94 del Consejo	(DO L 216 de 20.8.1994, p. 9)
Reglamento (CE) n° 1572/98 del Consejo	(DO L 206 de 23.7.1998, p. 1)
Artículo 16 del Reglamento (CE) n° 2666/2000 del Consejo	(DO L 306 de 7.12.2000, p. 1)
Reglamento (CE) n° 1648/2003 del Consejo	(DO L 245 de 29.9.2003, p. 22)

ANEXO II

TABLA DE CORRESPONDENCIAS

Reglamento (CEE) n° 1360/90	El presente Reglamento
Artículo 1, párrafo primero	Artículo 1, apartado 1, expresión introductoria
Artículo 1, guiones primero a cuarto	—
Artículo 1, segunda frase	—
—	Artículo 1, apartado 1, letras a) a c)
—	Artículo 1, apartado 1, párrafo segundo
—	Artículo 1, apartados 2 y 3
Artículo 2	—
Artículo 3, párrafo primero	Artículo 2, párrafo primero
Artículo 3, letras a) a g)	—
—	Artículo 2, letras a) a f)
Artículo 3, letra h)	Artículo 2, letra g)
Artículo 4, apartado 1	Artículo 3, apartado 1
—	Artículo 3, apartado 2
Artículo 4, apartado 3, primera frase	Artículo 3, apartado 3, primera frase
—	Artículo 3, apartado 3, segunda frase
Artículo 4, apartado 2	—
—	Artículo 3, apartados 4 y 5
—	Artículo 4, apartados 1 a 3
Artículo 4 bis, apartado 1	Artículo 4, apartado 4, párrafo primero
Artículo 4 bis, apartado 2	Artículo 4, apartado 4, párrafo segundo
—	Artículo 5
Artículo 4 bis, apartado 3	Artículo 6
Artículo 5, apartado 1	Artículo 7, apartado 1
Artículo 5, apartado 2	Artículo 7, apartado 2, párrafos primero y segundo
—	Artículo 7, apartado 2, párrafos tercero y cuarto
Artículo 5, apartado 3	Artículo 7, apartado 3
Artículo 5, apartado 4, párrafo primero	Artículo 7, apartado 4, primera frase
—	Artículo 7, apartado 4, segunda frase
Artículo 5, apartado 4, párrafo segundo	Artículo 7, apartado 5
Artículo 5, apartado 4, párrafos tercero y cuarto	Artículo 8, apartado 1, párrafo primero
—	Artículo 8, apartado 1, párrafo segundo
Artículo 5, apartado 4, último párrafo	Artículo 8, apartado 1, último párrafo
Artículo 5, apartados 5 y 6	Artículo 8, apartados 2 y 3
Artículo 5, apartados 7 a 10	—
—	Artículo 9
Artículo 6	—
Artículo 7, apartado 1, primera frase	Artículo 10, apartado 1, primera frase
Artículo 7, apartado 1, segunda frase	—
—	Artículo 10, apartado 1, segunda frase y párrafos segundo a cuarto
—	Artículo 10, apartado 2

Reglamento (CEE) n° 1360/90	El presente Reglamento
Artículo 7, apartado 2	Artículo 10, apartado 5, primera frase
Artículo 7, apartado 3	Artículo 10, apartado 3
—	Artículo 10, apartado 4, letras a) a k)
—	Artículo 11
—	Artículo 12
—	Artículo 13
Artículo 8	Artículo 14
Artículo 9	Artículo 15
Artículo 10, apartado 1	Artículo 16, apartado 1
—	Artículo 16, apartado 2
Artículo 10, apartado 2	Artículo 16, apartado 3
Artículo 10, apartado 3	—
Artículo 10, apartados 4 a 6	Artículo 16, apartados 4 a 6
Artículo 11, apartado 1	Artículo 17, apartado 3
Artículo 11, apartados 2 y 3	Artículo 17, apartados 1 y 2
Artículo 11, apartados 4 a 10	Artículo 17, apartados 4 a 10
—	Artículo 17, apartado 11
—	Artículo 18
Artículo 12	Artículo 19, apartado 1
—	Artículo 19, apartados 2 a 4
Artículo 13	Artículo 20
Artículo 14	Artículo 21, apartado 1
—	Artículo 21, apartados 2 a 4
Artículo 15	Artículo 22
Artículo 16, apartado 1	Artículo 23, apartado 1, párrafo primero y primera frase del párrafo segundo
—	Artículo 23, apartado 1, última frase del párrafo segundo
Artículo 16, apartado 2	Artículo 23, apartado 2
—	Artículo 24, apartado 1
Artículo 17	Artículo 24, apartado 2
—	Artículo 24, apartado 3
Artículo 18	—
—	Artículo 25
—	Artículo 26
Artículo 19	Artículo 27
—	Anexo